

## SEME ONDATZALLEAREN PARABOLA.



Jan ondoan Jesus echetik irten, eta bere ikasleakin Galilea ronzoan joan zan. Jendeak bereala ingurutu zuten, eta asi zitzayen, esaten, zein poz andia bekatari baten ondutzearekin Jainkoak artzen zuen: eta au obeto adierazteko, beste gauza askoren artean esan zien, *Seme ondatzallearen* Parabola edo ipui au. Gizon batek bi seme zituen, eta gazteena aitari senipartearen eske jarri zitzayon. Aitak bi anaiai, nori bere zatia eman zien, eta gazteena berearekin urrutietara joan, eta gauza guztiak ondatu artean, gaiztakeriatik gaiztakeriara ibilli zan. Denbora onetan, alderdi ayetan gosete andi bat sortu zan, eta seme ondatzalle oni ere ukitu zion. Bere burua ezer gabe ikusi zuenean, jango bazuen, morrontzan jarri zan, eta nagusiak cherri-zai ipiñi zuen. Ain izaera errukarrira irichi zan, non cherriai emandako ezkurak ere pozik jango zitukean; baña etzion iñork ematen, eta berak ere ezkurrik etzuen, cherriai kenduta, jateko. Kontuan jauzi zan, eta zion: ¡Zenbatak nere aitaren echean ogia naroro jango dute, ni emen goseak iltzen naukan bitartean! Nere aitari joango natzayo, eta esango diot: Aita, gaizki egin det Zeruairen kontra eta zure aurrean. Ez naiz zure semetzat idukitzeko diña: zure morroitzat artu nazazu. Au esan eta bideari ekin zion. Echera alderatu ere baño lenago aitak ikusi zuen. Aita onari, semea erruki artan ikustearekin, biotza erdiratu zitzayon, eta bidera irtenda, besoak egotzi, eta laztandu zuen. ¡Ai, ene aita maitea! Seme lotsaz beteak, malakoak zeriozkala, deadar egin zuen: ¡ai, ene aita biotzekoa! gaizki egin det Zeruairen kontra eta zure aurrean. Zure semearen izenik ere merezi ez det. Aita amorioz beteak bereala morroyai esan zien: Zoazte, eta soñekorik onena ekardazute: jantzi, erraztuna beatzean sartu, eta oñetakoak ipiñi zagozkatzute. Chal guri-guri

bat il, eta bazkaria prestatu ezazute; bada, seme au illa zan, eta biztu da; galdu zan, eta agertu da; eta guziak mayean jaten jarri ziran.

Seme zarrena garai onetan kanpoan zan, eta eche-ondoratuta, ain poz andiko soñuak aditu zituenean, morroi bati galdetu zion, ¿ea zer zan? Eranzun zionean, zer gertatzen zan, aserretu zitzayon, eta echean sartu ere nai etzuen: baña aita oartu zanean, esan zion, arren, sartu zedilla. Semeak orduan bere espak agertu ziozkan, esanaz: Onenbeste urtean egin dizut agindu guzia, ezertan ere utsegin gabe, eta anchume bat egundaño eman ez didazu, nere adiskide eta lagunakin arratsalde-gosari bat gozoro egin dezadan: orain etorri zatzu seme gaizto bere gauza guziak ondatu dituen ori, eta chal gizen bat ilerazorik, ongi-etorria egin diozu. Begira, ene semea, aitak esan zion: zu beti nerekin zaitut, eta nere gauza guziak zureak dituzu: bada, chit bidezkoa da, guk bazkari bat egin eta poztutzea etorri zaku-nean zure anaya ilta zegoana, eta biztu dana; galdua zana, eta agertu dana.

Ara emen, bekatari baten irudi mene-menetakoa. Seme ondatzailleak adierazten digu, bekatuan sartu eta itsututako bekatari, ezeri ere begiratzen ez diona, bere gogo gaiztoak asetzearren. Seme aitagana itzuliak erakusten digu, bekataria, bere bekatuak ezagutu dituenen, zer biotzekin itzuli bear dan, eta zein ondo Jainkoak artua izango dan. ¡Berri chit pozgarria bekataririk andientzat ere! Jainkoa, alabañan, prest daukate, egiaz damututa badijoazkio, beso zabalakin artzeko.

FRANCISCO IGNACIO DE LARDIZABAL.

